

bles-ek (Gatazkak, 1970), independentzia gerraren atarian den Irlanda du kokaleku. Lehen Mundu Gerratik bizirik ateratako Brendan Archer komandante ingelesa hara abiatzen da, guda aurretik ezkon-hitza emandako Angela Spencerrekin elkartu eta beren arteko harremana ofizial egiteko. Andreagaiaren familia anglo-irlandarraren esku dagoen Majestic hotelean topatuko duen giroak, ordea, zalantzak piztuko dizkio Irlandan eraman nahi zuten bizimodu baketsu eta lasaia.

Izenak adierazten duenaren kontra, egoera penagarrian dago hotela, eta haren jabe den familiari nahiz bertan ostatu hartuta dauden lagunei, denbora luzez populazio katolikoari bizkar emanda bizi izan direnez, kostea eginen zaie ulertzea aldaketa garaiak, ate joka baino gehiago, atea astintzen dabiltzala. Abiadura nabarmenean gelaz gela zabalduz doan usteltze eta narriadura prozesua aginte anglo-irlandarraren eta, oro har, inperioaren gainbeheraren sintoma moduan irakur daiteke, Ekialdean asaldura nagusitu eta Irlandan gatazken indarkeria gora doan bitartean.

Singaporeko lanuzteak

Farrellen trilogiako nobeletan azkenak, *The Singapore Grip*-ek (Singapur musua, 1978), Bigarren Mundu Gerra hasi berrikan Singapurren zabaltzen diren lanuzteak ditu abiapuntu. Britainiarrek uhartean duten enpresa zahar eta indartsuenetako baten buru den Walter Blacketterek zerbait ondo ez dabilen susmoa dauka. Negozioa inoiz baino hobeto doa, baina giroan ezinegona eta tentsioa antzeman daitezke. Egunez aurrera egin ahala, Koranaren erreketak eta sinofobia erasoak handitzearekin batera, are nabarmenagoa dira nazioen patua erabakitzen diharduten banakoen hutsaltsuna, kapitalismoaren gehiegikeria, eta militar industria-guneen boterea.

Nobelaren izenburuak prosti-tuten artean ezaguna den joko erotikoari egiten dio apamena; istorioaren testuinguruan, ordea, kolonoen sexu apeten isla ez ezik, ondo definituriko gizarte hierarkien errepresentazioa ere bada. Asia hego-ekialdean bizi diren atzerritarrek beren buruez ueste ona dute, eta harro daude tokikoaren artean bizimodu normala eramateaz. Baina gertaerarik txiki-kienak pentsamendu paranoikoak izatera bultzatzen dituzte. Segundo kontua da adiskidetzat harturiko auzokoak asiar traidore bihurtzea.

Literaturaz idaztea

Peru Iparragirre

Ez da ezohikoa liburu bat ala bestea oharkabean pasa dela entzutea edo esatea, hori dela-eta ke-xu izatea. Egia da liburu ia guztiekin jazotzen dela ez zaiela merezi duten arreta eskaintzen: gutxiegi batzuei, gehiegi besteei, agian. Itxuragabe baldintzuriko kontua da argitaratzen diren literatur lanez aritzea. Joan den urteko azken hilabeteetan argitaratu zuten Mariasun Landak *Txikiaren handitasuna literaturan* (Erein, 2018) liburua.

Sintomatikoa iruditu zait –nigandik hasita– liburu hau oharkabean pasa izana. Aipatu baldintzatze horren ondorioa da, ezbarrik gabe: Mariasun Landa Haur eta Gazte Literaturarekin ezinbestean lotzen dugu, zeina, Landak ongi dioen gisan, txikitat hartua den eta, ondorioz, ezikusia egiteko joera orokortua baita bere burua seriotzat duen edozein atzer-

ketatan eta abar. Kanonetik kanpo, edo kanonaren baitan bazterrean utzi ohi da Haur eta Gazte Literatura etiketa jartzen zaiona, hau lantzen duena. Nahiz eta, eta liburuak lantzen duen auzietako bat hau denez, literaturari etiketak jartzeak ez dion literaturari ezer gehitzen.

Artikulu, ponentzia, eta antze-ko testuen bilduma bat da *Txikia-*



'Txikiaren handitasuna literaturan'

Idazlea: Mariasun Landa.
Argitaletxea: Erein.

Eta, hala ere, amaiara zoriontsuarekin

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Eta, hala ere, amaiara zoriontsuarekin» esanez hasten da ipuin bilduma honen aitzinsolasa.

Inoiz baino beharrezkoagoa, izenburuak makina bat bitartekari (heldu, guraso, irakasle...) izutuko dituelako, hainbeste, ezen susmoa dut haurrentzako desegokia iritziko diotela.

Ipuinok irakurri egin behar dizkiegu gure haurrei, euren hobe beharrez. Aitzinsolasa ez saltatu. Argigarria da, eta lasaituko gaitu, eta barruko ipuinen onurak (ez nolana hikoak) zeintzuk diren argituko dizkigu.

Konparazioa batera, Igerabide beraren *Haur korapiloak* (Pamela, 1998) poesia liburua har liteke. Han ere haurren baitan dauden barne-gatazkak dira mintzagai. Esan genezake formatuz aldatu duela egileak.

Baina egile esatea gezurra esatea da. Ipuin hauek tradizioetik jasotako ipuinak direlako, ez Juan Kruzek, baizik eta Barandiaran, Satrustegi eta enparauk. Zehazkiago esateko, berridatzi egin ditu, orraztu, hango eta hemengo bertsoiak batu, eta bere bertsoi propioa osatu. Boz gora, poliki irakurtzeko moduan.

Iru-diak esplizituegiak dira. Iru-dimenari tarterik utzi gabe, ez dago aitzinsolasean agertzen diren asmoekin bat. Teknikoki maisulana irudituta ere.



'Euskal Herrietako Ipuin Gaiztoak'

Idazlea: Juan Kruz Igerabide.
Ilustratzailea: Elena Odriozola.
Argitaletxea: Denonartean.

ren handitasuna literaturan, hitzaurrea barne hogeita bi testuk osatua. Landak bere ibilbideari buruz egindako hausnarketak topatuko ditu bertan irakurleak, ibilbide honen testuingurua azaltzeko balio duten azterketekin batera. Horrela, Landak bere hainbat libururen jatorriaren eta izatearen gaineko argibideak ematen ditu batzuetan, eta baita urrunago doazen testuak ere, genero zapalkuntzak literaturan hartzen dituen dimentsioak eta honek dakartzan ondorioei buruzkoak, Haur eta Gazte Literaturan umoreak duen tokiaz diharduena, eta *Zientzia eta literatura mugen arteko espazioak* hitzaldia, kasu. Hala eta guztiz ere, ale guztietan topa daiteke literatura idaztearekin eta literatura irakurtzearekin, orokorrean zerkusia duten gogoetak.

Interesgarriak izaten dira –halakoak interesatzen zaizkien irakurleentzat, bederen– idazleek haien ibilbideaz, haien idazlanegituen dituzten hausnarketak biltzen dituzten liburuak. Are, dagoeneko ibilbide oparo eta aitortua duten idazleen kasuan ohikoak dira oso halako bildumak. Landak

Haur eta Gazte Literaturaz esaten dituenak, idazteaz eta irakurtzeaz esaten dituenak, orokorrean literaturaz esaten dituenak kontuan hartzeako direla iruditu zait, gurean ez baita sobera argitaratzen halako libururik, aipatu bezala, beste literaturetan ohikoak direnak. Literatura kezka duenarentzat aproposa izan daiteke liburu hau, are gehiago Haur eta Gazte Literaturaz eta, baita, zehatzago, literaturaren irakaskuntzaz jakin-minik duen edonorentzat.

Han eta hemen plazaratutako testuak liburu batean biltzea ez da alfer-lana, eta jakingura duen irakurleak eskertuko du –nik neuk, behintzat, eskertu dut–. Batek, irakurle den heinean gai hauen guztien inguruan izan ditzakeen intuizioak berresten ditu batzuetan Landak, baina baita hainbat auzi planteatzen ere, gogoetagai izatea merezi dutenak. Hori guztia, noski, istorioak osatzeko eta harilkatzeko, bederen– idazlasez emana. Ezer baino gehiago, liburu honek azpimarratzen du zein garrantzitsua den literaturgintzan txikitat jotzen dugun horri ere arretaz behatzea, bertan topa baitaiteke literaturaren handitasuna.

Ahalduntzea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Otso bat haur baten-gana hurbiltzen da, eta oihiu egiten dio. Hasieran haurra harritu-izutu egiten da, baina, gero, indarra hartu eta oihiu itzultzen dio, eta lehia irabazi. Otsua burumakur urruntzen da. Haurra, harriturik, atzetik doako, eta maitasun-keinu bat oparitzen dio. Haurrak bere bidea jarraitzen du; zerbait aldatu da bere baitan. Otsoaren baitan ere bai». Liburu-album hau zabaldua, lehen orrialdean hitzez hitz testu hauxe dator. Obra osoan ez dago hitz bat gehiago. Hauxe da, gainera, hurrengo orrialdeetan ikus-irakurriko dugun istorioaren gidioa.

Baina, benetan diotsuet, gerora datorrena da hoberena. Ederrena. Irakurri beharrekoa. Oraingoan ez baitago zertan aitzinsolasa irakurri. Keba.

Ilustrazio lana orri zuriaren gainean egindako marra beltzez dator. Dena, neskatoaren masail eta garrasien soinu gorriak izan ezik.

Iru-diak izkirimirietakoak dira, sinpleak bezain adierazkorrrak. Kontua ez baita neskatoari (edota otsoari) nortasuna ematea, baizik eta alderantziz, edozein neskato (eta otso) ordezkatzeko modukoak izatea. Ahalduntzea gerta dadin, han eta hemen. Nonahi. Lurbira osoan.



'A'

Idazlea: Lorena Martínez Oronoz.
Ilustratzailea: Lorena Martínez Oronoz.
Argitaletxea: Denonartean.